

Ekonomia Sustatzeko foru diputatuaren FORU AGINDUA, kreditu gehigarriaren erabilgarritasuna deklaratzeko duena, kreditu gehigarria eta 2023rako Bizkaia Sortzailea dirulaguntza-programaren oinarri arautzaileak eta deialdia onesten dituen abenduaren 20ko 160/2022 Foru Dekretuan xedatutakoa aplikatuz kreditua handitu ondoren aurrekontu-partiden behin betiko banaketa baimentzen dituen.

ORDEN FORAL de la diputada foral de Promoción Económica, por la que se declara la disponibilidad del crédito adicional, se autoriza el crédito adicional y la distribución definitiva de partidas presupuestarias tras la ampliación de crédito efectuada en aplicación de lo dispuesto en el Decreto Foral 160/2022, de 20 de diciembre, de la Diputación Foral de Bizkaia por el que se aprueban las bases reguladoras y la convocatoria del programa de subvenciones Bizkaia Creativa para el año 2023.

Abenduaren 20ko 160/2022 Foru Dekretuaren bidez 2023rako Bizkaia Creativa dirulaguntza-programaren oinarri arautzaileak eta deialdia onetsi ziren.

Mediante 160/2022, de 20 de diciembre, de la Diputación Foral de Bizkaia se aprueban las bases reguladoras y la convocatoria del programa de subvenciones Bizkaia Creativa para el 2023.

Aurrekontu-zuzkidurari buruzko 7.1 oinarrian adierazten denez, deialdi honetan eman daitezkeen laguntzen eta onuren zenbateko osoa 500.000 eurokoa da. Era berean, berariaz adierazten da zenbateko hori gutxi gorabeherakoa dela, eta aurrekontu-partidei esleitutako baliabide ekonomikoak berriro egokitu ahal izango direla jarduketa-arloen eta -partiden artean, eta kreditua handitzeko aukera ezartzen da.

En la base 7.1 dedicada a la dotación presupuestaria se señala que el importe total de las ayudas y beneficios que pudieran otorgarse en la presente convocatoria asciende a 500.000€. Asimismo, se indica expresamente que dicho importe tiene un carácter estimado y que los recursos económicos asignados a las partidas presupuestarias podrán readecuarse entre las partidas y áreas de actuación, y se establece la posibilidad de ampliación de crédito.

Zehazki, 7.3 oinarrian ezartzen da "Aurrekontuko partidei esleitutako kopuruak gutxi gorabeherakoak dira. Onartzen diren eskabideen arabera — eta erakunde onuradunen izaera juridikoak eta diruz lagundutako gastuen kontzeptuak askotarikoak izan daitezke—, aurrekontuko partidei esleitutako baliabide ekonomikoak partiden eta jarduerar- arloen artean egokitu ahal izango dira gastua aldatzeko espedienteen bidez edo espedienteen bidez. Horretarako, ez da beharrezkoa izango foru dekretu hau aldatzea, betiere partiden zenbateko osoak ezarritako muga gainditzen ez badu. Organo emaileak argitaratuko du behin betiko banaketa emakida ebazpenaren aurretik deialdiaren bitarteko berberetan. Publizitate horrek ez du esan nahi eskari berriak aurkezteko epea irekiko denik, ezta ere ebazteko epe berria hasiko denik."

En concreto en la base 7.3 se establece que las cantidades asignadas a las diferentes partidas presupuestarias tienen un carácter estimativo. En función de las solicitudes que resulten aprobadas, dada la diferente naturaleza jurídica de las entidades beneficiarias y los distintos conceptos de gastos subvencionados, los recursos económicos asignados a las partidas presupuestarias podrán readecuarse entre las partidas y áreas de actuación, mediante el o los oportunos expedientes de modificación de gasto, sin que sea obligatorio modificar este decreto foral, siempre que la cuantía total de las partidas no supere el importe total establecido en el mismo. El órgano concedente deberá publicar la distribución definitiva con carácter previo a la resolución de concesión en los mismos medios que la convocatoria, sin que tal publicidad implique la apertura de plazo para presentar nuevas solicitudes ni el inicio de nuevo cómputo de plazo para resolver."





Aipatutako 7.3 artikuluan oinarrituta, aurrekontu-partiden arteko berresleipena egin da, hasierako aurrekontua deialdi honetan lagundu beharreko erakundeen izaera juridikoaren errealitatera egokitzeko.

Bestalde, 7.5 oinarrian honako hau ezartzen da:

"34/2010 Foru Dekretuaren 43. artikuluan ezarritakoaren arabera, aurrekontu-zuzkiduraren zenbateko osoa gehienez ere zenbateko osagarri honekin handitu ahalko da: 400.000,00 euro

a) Edo zenbateko osagarria dagoenean eta zenbateko hori deialdi batzuentzat aurreikusitako zenbateko txikiagorekin ebatzitako aurreko deialdietatik datorrenean.

b) Edo emandako dirulaguntzak baino zenbateko txikiagoengatik aurreko deialdietatik eratorritako betebeharrak aitortu edo likidatu direnean.

c) Edo honakoak onetsi direlako eskuragarri dauden kreditu handitzea dagoenean:

1) Kreditu handitzeak.

2) Kredituak sortzea.

3) Kredituak sartzea.

Zenbateko osagarriaren eraginkortasuna kreditu eskuragarritasun deklarazioaren baldintzapean egongo da; deklarazioa dirulaguntzaren emakida ebatzi aurretik egin beharko da. Handitze hori organo emaileak baimenduko du eta eskuragarri dauden kredituen deklarazioa argitaratu beharko du emakida ebazpenaren aurretik deialdiaren bitarteko berberetan. Gainera, publizitateak ez du esan nahi eskari berriak aurkezteko epea irekiko denik, ezta ere ebazteko epe berria hasiko denik.

Aurreikusitako aukera ikusita, eta onartutako kreditua handitu ondoren, 22.589 euroko kreditu gehigarria dago aurkeztutako eskabide onargarri ahalik eta gehienera erantzuteko, Bizkaia Sortzailea programaren barruan diruz lagundutako sormen-enpresen lehiakortasuna eta garapena modu eraginkorragoan bultzatzeko.

Hori dela eta, Dirulaguntzen Erregelamendua onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 43 artikulua aplikatuz, beharrezkotzat jotzen da 0803/G/426106/44300 2012/0012 partidaren aurrekontu-zuzkidura 22.589,00 euroko kreditu gehigarria erabilgarri dagoela deklaratzeko eta

En base a el mencionado artículo 7.3 se ha llevado a cabo una reasignación entre partidas presupuestarias para adecuar el presupuesto inicial a la realidad de la naturaleza jurídica de las entidades a apoyar en la presente convocatoria.

Por otro lado, en la base 7.5 se establece lo siguiente:

"Al amparo de lo establecido en el artículo 43 del Decreto Foral 34/2010, la cuantía total de la dotación presupuestaria podrá ser ampliada en un importe adicional máximo de 400.000,00 euros:

a) Bien cuando exista cuantía adicional proveniente de convocatorias anteriores resueltas por importe inferior al previsto para las mismas.

b) Bien cuando se hayan reconocido o liquidado obligaciones derivadas de convocatorias anteriores por importe inferior a la subvención concedida.

c) Bien cuando exista un aumento de los créditos disponibles derivado de la aprobación de:

1.º Ampliaciones de crédito.

2.º Generaciones de crédito.

3.º Incorporaciones de crédito.

La efectividad de la cuantía adicional queda condicionada a la declaración de disponibilidad del crédito, que deberá efectuarse en un momento anterior a la resolución de la concesión de la subvención. Dicha ampliación será autorizada por el órgano concedente que deberá publicar la declaración de créditos disponibles, con carácter previo a la resolución de concesión en los mismos medios que la convocatoria, sin que tal publicidad implique la apertura de plazo para presentar nuevas solicitudes ni el inicio de nuevo cómputo de plazo para resolver."

A la vista de la posibilidad contemplada y tras la ampliación de crédito aprobada se dispone de un crédito adicional de 22.589 euros para atender el mayor número posible de las solicitudes admisibles presentadas, al objeto de impulsar de una manera más eficaz la competitividad y el desarrollo de las empresas creativas objeto de subvención dentro del Programa Bizkaia Creativa.

Por ello, en aplicación del artículo 43 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones se considera necesario declarar la disponibilidad de un crédito adicional por importe de 22.589,00 euros en la dotación presupuestaria de la partida 0803/G/426106/44300 2012/0012





aurrekontu-partiden behin betiko banaketa zein izango den zehaztea, balorazio-irizpideak gainditu dituzten proiektuak diruz lagundu ahal izateko; horretarako eskumena izango du dirulaguntza ematen duen organoak, kasu honetan, Ekonomia Sustatzeko foru-diputatuak, aintzat hartuta oinarrietan ezarritakoa. Deklarazio horiek deialdia argitaratzeko erabilitako bide berberen bidez argitaratu beharko dira, dirulaguntzak emateko ebazpena eman orduko; argitalpen horrek ez du ekarriko eskaera berriak aurkezteko eperik zabaltzerik, ezta ebazteko epearen beste zenbaketa bat hasterik ere.

procedente de una ampliación de crédito, así como fijar la distribución definitiva de partidas presupuestarias, de cara a subvencionar proyectos que han superado los criterios de valoración, correspondiendo la competencia para llevarlas a cabo al órgano concedente, en el presente caso y atendiendo a lo dispuesto en bases, la diputada foral de Promoción Económica. Debiéndose publicar dichas declaraciones en los mismos medios en los que se publicaron la convocatoria y antes de que dicte la resolución de concesión y sin que dicha publicidad implique la apertura de plazo para presentar nuevas solicitudes ni el inicio de nuevo cómputo de plazo para resolver

Enpresak Sustatzeko Zerbitzuak abenduaren 20ko 160/2022 Foru Dekretuan jasotako partiden azken aurrekontu-izendapenak proposatzen ditu:

El Servicio de Promoción Empresarial propone, las consiguientes consignaciones presupuestarias finales de las partidas, previstas en el Decreto Foral 160/2022, de 20 de diciembre:

— Partida: 0803/G/426106/44300 2012/0012.

— Partida: 0803/G/426106/44300 2012/0012.

- 2023ko urteko gastua: 257.589,00 euro.

- Gasto anual 2023: 257.589,00 euros.

- 2024ko urteko gastua: 250.000,00 euro.

- Gasto anual 2024: 250.000,00 euros.

— Partida: 0803/G/426106/45100 2012/0012.

— Partida: 0803/G/426106/45100 2012/0012.

- 2023ko urteko gastua: 15.000,00 euro.

- Gasto anual 2023: 15.000,00 euros.

- 2024ko urteko gastua: 0,00 euro.

- Gasto anual 2024: 0,00 euros.

Azaldutako guztia dela bide, kontuan hartuta zer eskumen ematen dizkieten Ekonomia Sustatzeko Sailaren titularrari Bizkaiko Kondeira Lurraldeko Foru Erakundearen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 39 i) eta 67.1 artikuluek eta Ekonomia Sustatzeko Foru Sailaren Egitura Organikoari buruzko Erregelamendua onesten duen abenduaren 17ko 207/2019 Foru Dekretuak, honako proposamen hau egiten da:

En virtud de lo expuesto, y habida cuenta de las atribuciones que conferidas a la titular del Departamento de Promoción Económica y visto lo dispuesto en los artículos 39.i) y 67.1 la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia, así como el Decreto Foral 207/2019, de 17 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento Orgánico del Departamento de Promoción Económica, se eleva la siguiente propuesta de:

EBAZPENA

RESOLUCIÓN

Lehenen.- Deklaratzea 2012/0012 proiektuko 0803/426106/44300 partidaren 22.589,00 euroko kreditu gehigarria erabilgarri dagoela, abenduaren 20ko 160/2022 Foru Dekretuari dagozkion eskaerei erantzuteko.

Primero.- Declarar la disponibilidad de crédito adicional por importe de 22.589,00 euros en la partida presupuestaria 0803/426106/44300 proyecto 2012/0012, para atender solicitudes correspondientes al Decreto Foral 160/2022, de 20 de diciembre.





Bigarrenen.- 2012/0012 proiektuko 0803/426106/44300 partidan 22.589,00 euroko kreditu gehigarria baimentzea, abenduaren 20ko 160/2022 Foru Dekretuari dagozkion eskaerei erantzuteko.

Segundo.- Autorizar un crédito adicional por importe de 22.589,00 euros en la partida presupuestaria 0803/426106/44300 proyecto 2012/0012, para atender solicitudes correspondientes al Decreto Foral 160/2022, de 20 de diciembre.

Hirugarrena.- Abenduaren 20ko 160/2022 Foru Dekretuaren babesean emango diren dirulaguntzen aurrekontuko diru-izendapenak, azkenean, honela banatuta geratuko dira:

Tercero.- Las consignaciones presupuestarias finales de las ayudas que se concedan al amparo del Decreto Foral 160/2022, de 20 de diciembre, quedan con el siguiente desglose:

Aurrekontuko partida: 0803/G/426106/44300/0000 2012/0012	
Ekitaldia	Zenbatekoa
2023	257.589,00
2024	250.000,00
Aurrekontuko partida: 0803/G/426106/45100/0000 2012/0012	
Ekitaldia	Zenbatekoa
2023	15.000,00
2024	0,00

Partida presupuestaria: 0803/G/426106/44300/0000 2012/0012	
Ejercicio	Importe
2023	257.589,00
2024	250.000,00
Partida presupuestaria: 0803/G/426106/45100/0000 2012/0012	
Ejercicio	Importe
2023	15.000,00
2024	0,00

Laugarrena.- Ebazpen hau Ogasun eta Finantza Saileko Fiskalizazio Zerbitzuari helaraztea, eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta deialdia argitaratzeko erabilitako gainerako bideen bitartez argitaratzea.

Cuarto.- Dar traslado de la presente resolución al Servicio de Fiscalización del Departamento de Hacienda y Finanzas y proceder a su publicación en el "Boletín Oficial de Bizkaia" y demás medios en los que se hubiera publicado la convocatoria.

Bostgarrena.- Ebazpen honek administrazio-bidea amaitzen du, eta beraren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango da Ekonomia Sustatzeko foru-diputatuaren aurrean, HILABETeko epean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako moduan; administrazio publikoekin harremanak modu elektronikoan izatera beharturik dauden pertsonak modu elektronikoan aurkeztu beharko dute errekurtso hori, Ekonomia Sustatzeko Sailaren bulego birtualaren bitartez.

Quinto.- Esta resolución agota la vía administrativa, y por lo tanto, en el plazo de UN MES, se podrá interponer contra la misma Recurso Potestativo de Reposición ante la Diputada Foral de Promoción Económica en los términos que se indican en la Ley 39/2015 de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, debiendo las personas obligadas a relacionarse electrónicamente con esta administración a presentarlos de manera electrónica a través de la oficina virtual del Departamento de Promoción Económica.





Era berean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da txandaren arabera dagokion Administrazioarekiko Auzien Bilboko Epaitegian, BI HILABETEKO epean, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean ezarritako moduan.

Ezin izango dira errekurtso biak aldi berean jarri.

Aipatutako epeak ebazpen hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuko dira.

Asimismo, en el plazo de DOS MESES podrá interponerse recurso contencioso administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso Administrativo de Bilbao que por turno corresponda en los términos que se indican en la Ley 29/1998 de 13 de julio, Reguladora de la Jurisdicción Contencioso Administrativa.

No será posible simultanear ambos recursos.

Los plazos anteriores cuentan desde el día siguiente a aquel en que se publique esta resolución en el Boletín Oficial de Bizkaia.

